

# 10 The Gigantes

19,30

Beatriz Sanchisena (Mexiko-AEB, 2021, 94')

Epaimahaiaren aipamen berezia eta argazki onena Málagako Jaialdian

Zorrek itota, Ameriketako Estatu Batuetako *white trash* emakume gazte batek ihes egingo du Los Angelesetik Kalifornia Beherera, Mexikora, bere bizimodu zalapartatsutik salbatuko duen maitale zahar baten bila. Mexikar nerabe bat izango du lagun, etxetik ihes egin duena eta diru-kopuru erakargarri bat eskaini diona, aita ikustera eramatea onartzen badu. Bidean, oso harreman berezia sortuko da bi emakumeen artean.

**Beatriz Sanchis** bidearte egiten hasi zen *Love* lehen piezarekin, eta ikus-entzuzkoen arloa esploratzen jarraitu zuen zenbait film laburrekin, besteak beste, *La clase* eta *Mi otra mitad* lanekin. 2014an, *Todos están muertos* lehen film luzea idatzi eta zuzendu zuen. Film luze berri honetan, gizartearen estandarretan sartzen ez diren emakumei buruzko istorioak kontatzen saiatzen da.

Solasaldira gonbidatua: **Beatriz Sanchis**, filmaren zuzendaria.



# 13 Blue Moon

11,00

19,30

Alina Grigorena (Errumania, 2021, 85')

Urrezko Maskorra, Donostiako Zinemaldiaren 69. edizioan

Irina gaztea landa-giroko Errumanian bizi da eta lan egiten du, familiaren hotel txikian. Indarkeria matxisten espekto zabala du aurrez aurre, dela baimenik gabeko sexua, dela etxekoek beregan duten kontrol obsesiboa. Ingurune patriarkal horretatik ahizparekin batera ihes egiteko saiakeran lagun egingo diogu protagonistari.

**Alina Grigore**, Bukarest, 1984. Aktorea izan zen zuzendaria baino lehen, eta 10 urterekin hasi zen antzeztan. Bukaresteko Antzerki eta Zinematografia Arteen Unibertsitatean gradua eskuratu zuen, zenbait zinemagilerentzat aktore aritu da, besteak beste, Cristi Puiu (*Aurora*) eta Radu Potcoavarentzat (*Happy End*), eta telebistako hainbat sailetan protagonista izan da. Adrian Sitaru zuzendariarekin batera, *Llegitim* (2016) lanaren gidaria idatzi zuen. Film labur batzuk zuzendu ondoren, *adibidez*, *River-bet* (2017), bere opera prima iritsi da, *Blue Moon* (2021).

Solasaldira gonbidatua: **Irantzu Varela**. *Factoría Lilaren* koordinatzailea eta aurkezlea *El Tornillon*, *La Tuerkako* mikroespazio feministan eta *En la Frontera*, Público TVn. Kolaboratzailea da *Pikara Magazinen*.



## ZINEMAREN ETA EMAKUMEEN 36. ERAKUSKETA INTERNAZIONALA

IRUÑEA 2022KO EKAINAREN 10ETIK 17RA

Colaboran/  
Laguntzaileak



Organizan/  
Antolatzaileak



# 14 Camila saldrá esta noche

11,00

19,30

Inés Barrionuevoren (Argentina, 2021, 103')

Camila behartuta egongo da Buenos Airesera joatera bizitzera, lagunak eta bigarren hezkuntzako eskola publiko liberal bat atzean utzita, erakunde pribatu tradizional batean sartzeko. Sexua ezagutzeko prozesu bat hasiko du, eta Argentinan olatu berde feminista handiaren balioa erakutsiko du.

**Inés Barrionuevok** zenbait film labur zuzendu ditu eta 2014an bere lehen film luzea estreinatu zuen, *Atlántida*. Ondoren, *Julia y el zorro* (2018) eta *Las motitos* (2020) etorri ziren. Azken horrek Zilarrezko Biznaga saria irabazi zuen aktore emakumezko onenarengatik eta Iberoamerikako film onenarengatik Málagako Jaialdian.


Solasaldira gonbidatua: **Vanina Vázquez**, lizentziaduna Psikologian, aditua Generoan eta Familia Bitartekaritzan. Proiektuen teknikaria da Euala Iniziativasen. *El eclipse* zinematoografoaren abenturari eskainitako podcasta gidatzen du.



# 14 Film laburrak femeninoan

17,30

22,30



**Club Silencio**, Irene Albanellena (Espainia, 2021, 18'32"). Martina 10 urteko neska-toak Alejandra amarekin igaroko du arratsaldea. Ama-alabak sekulako kimika dute, baina Alejandrak drogekin duen kontaktu kaltegarriak zaildu egiten du beren arteko harremana.


**Escamas**, Katherina Harderrena (Espainia, 2020, 18'18"). Bularretako minbizi baten ondorioz mastektomia egin ziotenetik Alicia (39) ez da berriro eroso sentitu bere gorputzarekin. Etxean ustekabeko bat eduki ondoren Lucía bizilagun berria ezagutuko du. Emakume transexuala da, eta bere burua berriro ezagutzeko eta onartzeko prozesuan lagunduko dio.

**Oro Rojo**, Carme Gomilarena (Espainia, 2020, 12'04"). Oro Rojo Huelvan marrubiak biltzen aritzen diren marokoar emakumeen salaketatik abiatzen da, egiturazko alderdiari heltzen dion kontaketa polifonikoa eraikitzeko: migrazio-politikak, estraktibismoaren aurkako borrokak, arraza-kapitalismoa, ezarrita dauden aliantzak... Gatazkarren konplexutasunaren eta bere irudikapenaren ganean gogoeta egiten laguntzen digu.

**Sorda**, Nuria Muñoz-Ortín eta Eva Libertadena (Espainia, 2021, 18'). Ángela gorra da eta Dariok entzuten du. Bikotea dira, eta sei oilo, lau txakur, baratze bat eta komunikazio-arazo asko dituzte. Orain seme bat izango dute.

**XSmall**, Alba Gutiérrezena (Espainia, 2022, 13'). Taniak praka batzuk erosi ditu, jai batera joateko. Janzten dituenean, ordea, txiki dituela ohartuko da. Ezusteko txiki bat. Baina Taniarentzat beste praka batzuk janzea ez da aukera.

**Tótem Loba**, Verónica Echeguiena (Espainia, 2021, 22'50"). Estíbalizek institutuko lagun Raquelen gonbidapena onartuko du, herriko jaietara joateko. Itxura batean plan dibertigarria izango zena erabateko amesgaizoto bihurtuko da, ordea.



TRAMAK egindako hautaketa (Emakumeek egindako zinema, bideo eta multimedia erakustaldien eta jaialdien koordinakundea)

# 15 Una historia de amor y deseo

11,00

19,30

Leyla Bouzidena (Tunisia, 2021, 102')

Ahmed, 18 urtekoa, aljeriar jatorrikoa, Parisen aldirietan hazi zen. Unibertsitatean, arabiar literaturari esker, Farah ezagutu zuen eta itxuragabe maitemindu zen hartaz, nahiz eta aurka egiten saiatu. Filmak begirada garrantza egiten du genero-, migrazio- eta arraza-kontuetarantz, Frantziaren arabiar testuinguruan.

**Leyla Bouzidek** Frantziako Literatura ikasi zuen Sorbona Unibertsitatean, eta ondoren Zinematografiako Zuzendaritza, La Fémisen. Zenbait film labur egin ditu, hala nola *Un ange passe* (2010). *A peine j'ouvre les yeux* (2015) film luzearekin egin zuen debuta, Veneziako Jaialdian estreinatua eta berrogei saritik gora jasotakoa.

Solasaldira gonbidatua: **Maya Amrane**. Lizentziaduna Informazioaren eta Komunikazioaren Zientzietan. Esku-hartze sozialean lan egiten du, eta espezialista da kultura-aniztasunean eta antiarrazismoan.



# 16 Brainwashed. Sex-camera-power

11,00

Nina Menkesena (AEB, 2022, 105')

Zinemaren hizkuntza bisuala ikertzen du, genero-ikuspegi batetik, emakumeen errepresentazio zinematografikoetan murgiltzen da, eta nola zinemaren meta-maila hau gurutzatzen den gizarte-arazoekin, adibidez, sexu-erasoekin.

**Nina Menkes** zinemagile independentea da. Bere filmen artean, *La Reina de diamantes* (1991), *Amor fantasma* (2007) eta *Disolución* (2010) daude. Horrez gain, irakaslea da Kaliforniako Arte Institutuan eta Unibertsitatean.

Solasaldira gonbidatua: **Nerea Aguado** ikus-entzuzko komunikatzailea, espezialista Berdintasunean, fanzinegilea eta poeta. Bere lanaren bidez, emakumeen errepresentazioa aztertu du eta bai nola kontatu den haien historia, formatu desberdinetan.



# 16 Nuestros cuerpos son sus campos de batalla

18,00

Isabelle Solasena (Frantzia, 2021, 100')

Kontserbadurismoaren eta feminismoaren bultzada baten artean banatuta dagoen Argentina batean, filma bi emakume transexualen politika- eta bizi-ibilbidetan murgiltzen da. Bi emakume horiek, beste kide batzuekin batera, indarkeria patriarkalaren aurkako errailetako borrokaren buru izango dira.

**Isabelle Solas**. Zuzendaria eta kameraria da, Bordelen kokatua. Performanceen eta street art-aren arloan ere lan egiten du. Aurreneko filma *Inventaire* (2009) izan zuen.

Solasaldira gonbidatua: **Mar Cambrollé**. Diktadura frankistaz geroztik pertsona transexualen eskubideen aldeko aktibista historikoa da. Andaluziako Transexualitate Lege aitzindariaren sustatzaileetako bat ere bada, eta egun, Federación Plataforma Trans erakundearen burua.



# 16 Matrioskas, las niñas de la guerra


20,30

Helena Bengoetxarena (Espainia, 2021, 74')

Teresa, Alicia, Araceli eta Julia laurogeita hamar urtetik gorako lau emakume dira, "gerrako neskatu" izan zirenak eta erbestera bidaliak 36ko gerran. Bizi-ibilbide eta -egoera ugariak irudikatzen dituen sinboloak dira matrioskak: beste bizitza barruan dauden bizitzak.

**Helena Bengoetxea** ez-fikziozko zinemaren aritzen da, eta ikus-entzuzko piezak egin ditu hainbat gaitan, besteak beste, feminismoan, memoria historikoan eta garapenerako hezkuntzan. Haruru Filmak ekoiztetzeko kidea da.

Solasaldira gonbidatua: **Helena Bengoetxea**, filmaren zuzendaria.



# 17 La amiga de mi amiga

11,00

19,30

Zaida Carmonarena (Espainia, 2022, 85 min)

Un Impulso Colectivo saria jasoa 2022ko D'A Film Festival Barcelona jaialdian.

Hogeita hamar urte dituzte, baina hogeitaz zuzentzen bezala bizi dira. Maitasunarekin maiteminduta daude, baina, haren bilaketan, batzuek besteak suntsitzen dituzte, alderai ibilita neska-lagun ohitik neska-lagun ohira, harremanetik harremanera. Popa eta autofikzioa testuinguru moduan, joko bat izango dugu aurrez aurre, harreman bat eten ondoren Zaida hirira itzultzen denean hasten dena.

**Zaida Carmonak** erredaktore lana egin du telebistan eta beste komunikabide batzuetan, besteak beste, Notodo eta Vicen, eta film laburrak, adibidez, *Son ilusiones* (2021), eta zenbait artistarentzako bideoklipak zuzendu ditu.

Solasaldira gonbidatua: **Zaida Carmona**, filmaren zuzendaria.

